

egunekoa

Joseba Agudo

(Abokatua)

Mexikoko kanporaketek Giza Eskubideak bortxatu dituzte

Euskaldunok, azken 30 urteetan, kanporaketa, estradizio eta antzeko hitzen jabe egin behar izan dugu gure gogoaren kontra. Pertsona bat ihes egitera behartua denean, beste estatu batera iristen delarik, ez du pentsatzen estatu horretatik inoiz ihes egin behar izan duen estatura itzularaziko dutenik; are gutxiago, polizia horren eskuetan inkomunikatuta egonaraziko dutela. Tamalez, frantziar Estatuak, lehenik, eta beste zenbaitek, ondoren, espainiar Estatuak gobernuek praktikan jarri duten estrategia errepresiboekin bat egin dute. Haien artean, Mexikoko Estatu Batuak dira, euskaldun iheslari politiko gehien kanporatu nahiz estraditatu duen herria, 25 pertsona igorri baitituzte Madrilerantz (24, kanporaketa ilegalen bidez, eta pertsona bakarra estraditatu).

2001. urteko azaroan, Mexikoko Diputatuen Ganberako Kexa eta Informazio Batzordean, Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokiak salaketa bat jarri zuen, Mexikotik egindako euskal iheslari politikoaren kanporaketen ilegaltasuna salatzen asmoz. Batzorde horretan aurkeztutako salaketa bertako Giza Eskubideen Nazio Batzordera (GENB) bideratua izan zen, zeinak europar estatuaren herri defendatzaileak betetzen duen kargua beteke lukeen Mexikon.

2002. urtea amaitzear zela, GENBtik jaso genuen urtebete lehenago aurkeztutako salaketaren erantzuna. Erantzun horren azterketa litzateke gaurko artikulua helburua.

90eko hamarkadan, Mexiko egoera nahasi batean zegoen: Ernesto Zedillo Gobernura iritsi berria zegoen, PRI-

LEHEN ALDIA

Giza eskubideak bortxatu izanaren gaia ez da txori kaka. Lehen aldia da Mexikoko erakunde batek horrelako aipamena egin duela

ren desgastea ordurako biziki nabarmena zen, indigenen altxamendua, Ameriketako Estatu Batuekin eta Kanadarekin sinatu Komertzio Librerako Hitzarmenaren porrota, eta abar eta abar. Horrek guztiak egoera larrian jarri zuen Mexikoko ekonomia.

Egoera horretan, Mexiko espainiar Estatuarekin harremanetan hasi zen Europako Batasunarekin harremanak estutzeko asmoz, horretarako lagun ezin hobek izango zituelarik, lehenik Gonzalez eta bigarrenik Aznarren gobernuak. 2000. urtean, Mexikok Europako Batasunarekin sinatu zuen Komertzio Librerako hitzarmena. Zer ordaindu zuen bakoitzak?

Negoiazio horren datu zehatzik ez dakigu, eta ez dugu inoiz jakingo, baina argi dagoena zera da: 1995. urte arte Mexikok euskal iheslari politikoaren presentzia baimentzen bazuen —nahiz eta ordurako bi estradizio saio izan ziren, epaitegiek errefusatu zituztenak (Esteban Murillo eta Andoni Zelaia)—, geroztik erabat mugatuko du haien existentzia, eta ahal duen kide gehienak kanporatu egingo ditu, erabateko ilegaltasunaz baliatuta.

Gaur mintzagai dugun ebazpenak, 23 kanporaketetatik (azkena, Borde Gaztelumendirena, eman gabe baitzegoen salaketa aurkeztutako unean), 9

bakarrak aztertzen ditu, eta 14 epez kanpo aurkeztuak izan direla argudiatu. Arazoa da kasuak banan-banan aztertzen direla, eta ez Estatu politika gisa, alegia, borondate irmo bat dagoela ilegaltasunak ilegaltasun euskal iheslari politikoak Mexikotik kanporatzeko komeni zaien bakoitzean. Aztertzen dituen 9 kasuetatik 6 kasutan, pertsona horien giza eskubideak urratu direla esaten du GENBk: Mikel Izpura, Mikel Arrieta, Josu Gotzon Larrea, Jose Angel Otxoa de Eribe, Leire Martinez eta Jagoba Codo. Aztertu dituen beste hiru kasuetan, Bixente Sagredo, Begoña Sanchez del Arco eta Gorka Pike, halako prozedura minimo bat errespetatu zela dio, giza eskubideak bortxatu zirenik aipatu gabe utzita.

Askatasun, legezotasun eta berme juridikorako gizabanako orok dituen eskubideak bortxatuak izan omen dira. Horrez gain, sei pertsona horien atxiloketan eta kanporaketan parte hartu zuten funtzionario polizialak espedientatuak izan direla dio, erakunde behatzaile bateko barne araudiari jarraituz.

Giza eskubideak bortxatu izanaren gaia ez da txori kaka. Lehen aldia da Mexikoko erakunde instituzional batek horrelako aipamena egiten duela, hain modu zehatzean gainera. Horrez gain, ikerketa hori Diputatuen Ganberaren eskariz egin izanak ere badu bere garrantzia, Diputatuen Ganberak erresoluzio horren berri izango duela.

Halere, egia da beste hainbat alorrean ebazpenak ez duela ezer gehiago

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

zutabea

Bixente Serrano Izko



Humanitarioa

Hain gara onberak mendebaldekoak, non guk egindako gerrak ere *humanitario* baitira dagoeneko, hedabideetako hitz horren erabilera berrian. Zailagoa egiten zait, ordea, asmatzea zergatik hitz egiten diguten hondamendi edo katastrofe *humanitarioez*, naturalek edo gure teknologiaren hutsegiteek txiroen munduan eragindako ezbeharrez mintzo. Orain arte, nire uste ziurrenik okerrean, hondamendi eta katastrofe *humanoei* aurre egiteko ekimen *humanitarioak*, hau da, giza bidezko laguntza eta salbamenerako operazioak antola zitezkeen. Eta zuzen nengoela erraten didate lagun adituek, hauek ere asalaturik bi hitzen arteko nahasmendu berri horrekin, presazko kazetaritzak eragindako errore bat delakoan.

Neuk, aldiz, bertze susmo bat dut. Nire lanbideak sorrarazi didan usaimen berezi baten arabera, ageriko errorean azpitik beti dago zera bat, ezkutuko uste eraginkor bati loturiko zerbait, eta horregatik, hain zuzen, baliabide pedagogiko bikain bilakatzen zaizkigu batzuetan okerrak eta akatsak. Susmoa dut, harira joaten, auzi honen azpitik egitan uste sendoren batekin egin dezakegula topo. Ezaguna da, kasurako, herri anitzek beren herri-deitura gisa erabiltzen dituzten hitzek «gizakia», «zibilizatu», «pertsona», «jendea» eta antzeko erranahiak dituztela: *Innu*it (gizakiak) dira eskimalak; *kmt* (zibilizatuak) ziren antzinako egiptoar kamitar haiek; *aka* (gizakiak) dira Afrikako pigmeoen tribu batekoak; *Lagun izoztua*-ko Andonik ezaguturiko *nantu* horiek, bertze izen bat, «pertsona» esangurakoa, dute beren herri-deitura... Eleetan ere, greko-erromatarrek grekoa eta latinera zituzten hizkuntza bakarrak, *bar-bar-bar*, totelka, mintzo izaten zirelarik gainerakoak, *barbaroak*; euskaldunok erdara gisa hartzen ditugu osoko hizkuntza, euskara ez diren bertze mintzaira guztiak... Argi dago: nor bere tribu, herri, kultura, zibilizazioak ditu benetako gizakiak, hiztunak, *humanoak*, eta auskalo zer, sasi-gizakiak gehienez, gainerakoetakoak.

Horrela bai uler daitekeela *humanitario* hitz-erabileraren esangura sakona, oker bat izatetik haratago. Mendebaldeko zibilizatuok gara *humano* bakarrak eta bertze guztiak gizakion etsai. Bai hauen aurkako gure gerrak, bai euren ezbehar hondatzaileak, *humanoon* salbamenerako kontu onuragarriak bide dira: gerra eta katastrofe *humanitarioak*, alegia.

seiko urrea

Julen Zabalo



Ez eman botoa Imazi

Jimenez de Pargak berri du Batasuna ilegalizatu izan dadin duen desio sakon eta sutua, argi erakutsiz ez dela lotsatzen horrela jokatzearren, ziur baitago politikarien eta kazetarien oniritzia jasoko duela. Beharbada ez luke esan behar, baina, esaten badu ere, ez da akats larria, hurrean. Euskal Herrian, berriz, ez dago hain argi akatsa ez denik. Horrela ulertu dutenetako bat Eusko Jaurlaritzaren

izan da, zeinak, Imaz eldunaren bidez, bere gaitzespena helarazi baitu, halako posizioan dagoen pertsonak kontu handia ipini beharke bailuke adierazpenak egitean, eta beti neutraltasun irizpideari estuki jarraitu.

Gai beraren inguruan sorturiko beste adierazpen batzuek, ordea, argitu egingo digute Imazek neutraltasunaz ulertzen duena. Izan ere, Otegi eginiko galdera publiko bati erantzunez, Eusko Jaurlaritzaren

eledun horrek Batasunaren ilegalizazioaz duen desadostasuna adierazi zuen, eta ondoren azaldu bere desioa Batasuna hurrengo hauteskundeetara aurkeztea dela, baina han bozemaileen arbuirik ankerrena jaso dezan bakarrik. Edozein herritarrek du bere desio politikoa plazaratzeko eskubide osoa, eta halako adierazpenak herritar huts gisa, edo baita alderdi baten ordezkari gisa ere egin izan balitu, eskubide osoa edukiko zukeen Imazek, nahiko jokaera itsusia izan arren, baina bera gobernu baten ordezkari da, eta, kasu horretan, berak Jimenez de Pargari buruz esandakoak itzul dakizkioke, halako kargu bati neutraltasuna eskatu behar zaiola eta desio horiek agertzea bere betebeharra ez dela esanez.

Hala ere, Jimenez de Parga bezala, Imaz

ere ez da lotsatzen halakorik esatearren, bera ere ziur baitago politikarien eta kazetarien oniritzia jasoko duela hori esatearren, eta ez dutela akats gisa hartuko. Oso bestelako erreakzioa etorriko zatekeen desio bera PPri buruz plazaratu izan balu, baina argi dago hori ez duela esango, jokoaren arauak apurtzea izango litzateke eta.

Ibarretzek behin eta berriro agertzen du bere burua *euskal gizartearen* ordezkari modura, eta etengabe eraiki nahi ditu zubiak *gizarte oso* hori bat egin dadin. *Euskal* horrekin osotasunaren zati txiki bat baino ez hartzeaz gain, argi dago, Gasteizen erakusten duenagatik eta Imazek azaltzen duenagatik, *gizarte* ere osotasunean hartzeko gogorik ez duela eta eraiki nahi dituen zubiei begi bat kendu nahi diela.